

## **IMH-k Zuk Zeuk Lehiaketan parte hartzeari esker, Euskal Herriko 900 gazteek orientazioa aktiboki landu dute!**

2021eko Zuk Zeuk Lehiaketako edizioan parte hartu dugu, jakingo duzuen bezala. Lehiaketa hau Feel My Way Kooperatibak eta Euskal Herriko 12 eragilek (Gipuzkoako Foru Aldundia, Laboral Kutxa...), elkarlanean antolatzen dugun ekimena da. Aurtengoa 3.edizioa izan da eta 30 eskola eta elkartetako, 900 gazte animatu dira. Egoera ezegonkorra zen arren, lehiaketa honi esker, gazteak Garapen Iraunkorreko Helburuak eta orientazioa modu ludiko batean lantzen ari ziren bitartean aisialdiaz gozatzeko aukera izan zuten.

Dagoeneko amaitu da, eta gazte taldeek hainbat ekintza egin dituzte. Mota ezberdinetakoak izan dira:

- IMH-ri buruzko galderak erantzun eta informazioa bilatuz, gure izaera posterrak osatu dituzte.
- Lanbide ezberdinak ezagutzeko, haien inguruko pertsonengana jo dute, eta horrela haien etorkizuneko lanbideak izan daitezkenak identifikatu eta hausnarketa pertsonalak egin dituzte.
- Gazteek Fabrikazio aurreratua eta digitalari buruz esperimintatzeko aukera izan dute: haien egunerokotasuneko egoerak hobetzeko 3D-ko piezak diseinatu dituzte, EKIN proiektua ardatz hartuta industria 4.0-ko hobekuntzak txertatu dituzte prozesu industrialetan...

Ekintza guztiak jasotzearekin batera, gazteen hausnarketak ere jaso ditugu eta honek, haien ikuspegitik gure egoera nola dagoen ulertzen lagundu digu.

Azpimarragarrienak hauek izan dira:

- Eskertu egin dute, haien adinean horrenbeste aipatzen den orientazioa lantzeko ekintza aktiboak izatea, lanbide, gradu eta unibertsitatei buruzko informazioa eskuratzeaz hain, esperimintatzeko aukera ere izan dutelako.
- Lehiaketan parte hartzeari esker ohartu dira orientazioa ez dela haien ikasketak aukeratzeko orduan presente dagoen kontzeptua bakarrik. Azpimarratu dute, ikastetxeetan bertan gai ezberdinak lantzen ari direnean, gai horiek errealitatean zertarako balio duten ikustea garrantzitsua dela, gazteek ikasten dituzten gaiak zentzua aurkitu diezaioten. Eta hau lortzeko, lanbide ezberdinetako pertsonekin harremana izatea oso baliagarria dela, ikasitako gaiak errealitatean duten aplikazioa ulertu ahal izateko.
- Haien etorkizunera begira jakin badakite egunerokotasunean ikusten ez dituzten hainbat lanbide daudela, eta berriak sortzen joango direla. Dena dela, nabarmena izan da, oraindik ez dutela lanbide ezberdinen berri, betiko 5ak ezagutzen dituzte eta

horietan geratzen dira, azken batean, egunero ikusten dituztenak direlako. Horrenbestez, haien orientazioa lantzerako orduan perspektiba irekiko dieten baliabideak behar dituztela ondorioztatu dute.

Hauek puntu nagusiak besterik ez direla esan dezakegu, lehiaketan jasotako guztia izugarria izan da eta. Gure herrian etorkizunera begira pausuak emateko, gazteek, kontzientzia, interes eta kritikotasun maila altua dutela argi geratu da. Askok irakatsi digute esperientzia honetan ere bai!!